

Irune Muguruza Mendarte
Haurreskolak Partzuergoko gerentea

Lanean tenperatura desagokiek (hotzak zein beroak) eragindako arazoak izatea oso fenomeno hedatua da ia lan jarduera guztietan, nahiz eta arazoak askotariko arrazoiengatik izan. Batzuetan, arazoa esparru itxietan agertzen da, eta beste batzuetan, berriz, aire zabaleko lan-jardueretan. Lokal itxietan, batzuetan arazoa produkzioprozesutik bertatik dator (burdinolak, labeak, berotegiak, hozte-ganberak...). Beste batzuetan, aldiz, arazoa koiunturala da, eta urteko sasoiaren eta baldintza klimatologikoen arabera agertzen edo desagertzen da.

Klima Aldaketari buruzko Gobernu Arteko Panelaren (IPCC, ingelesez) azken txostena kezagarria da: planetaren tenperaturak gora egiten du, eta lehorteen, bero-boladen edo bat-bateko tenperatura-aldaketen arriskua biderkatu egiten da.

Haurreskolak Partzuergoko zentroetan gero eta ohikoagoak izaten ari dira tenperatura desagokiek sortzen dituzten arazoak, langile eta haurren ongizatean eragin zuzena izanik eta honek dakarren arriskuarekin.

Horregatik, **LAB Sindikatuarentzat ezinbestekoa da Haurreskolak Partzuergoan ere arazo honi aurre egiteko protokolo eraginkor bat sortzea.**

Hori dela eta, **LAB Sindikatuak honakoa eskatzen du:**

Lehena.- Tenperatura desagokien aurrean jarduteko protokolo eraginkorra bat sortzea.

Bigarrena.- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lan eta osasun batzordeak deitzea.

Hirugarrena.- Lantokien arteko Batzordea deitzea.

Laugarrena.- Haurreskolak Partzuergoarekin lankidetzan duten udalei protokoloa beteaztea.

Zuen erantzunaren zain,

LAB Sindikatua

Euskal Herrian 2025eko uzatailaren 3an